

'Agenda 21' planak Hernaniri buruz egindako diagnosia aurkeztuko du Udalak Biterin

■ Desarroilo jasangarriari begira egindako diagnosia da eta aurkezpena sektoreka egingo da ■ Aurrenekoa gaur bertan egingo da Biterin 19:00etan, eta gainerakoak martxoak 6 bitartean izango dira.

TOKIKO Agenda 21 planaren barruan Udalak Hernaniko diagnosi orokorra egin du, eta zenbait bilera egingo dira herritarrei diagnosi horren berri emateko.

Agenda 21 planak orain arteko desarroilo ereduak eta globalizazio ekonomikoa zailtzen jartzen ditu, eta garapena eta ingurugiroaren arteko oreka bilatzea da helburuetako bat, ondorengo belaunaldiak ez hipotekatzeko.

Udalak planteamendu hori herrira ekarri eta "gauzak aldatzeko prozesu bat" hasi du. Prozesu horretan ezinbesteko jotzen dira informazioa eta herritarren parte hartzea, eta Ortzadar enpresak egindako diagnosia izango da eztabaida horren abiapuntua.

Diagnostikoa, azken finean, "Hernaniko ingurugiroaren eta sozio-ekonomiaren radiografia" da: lurra nola antolatua dagoen, ur eta energia kontsumoak, kutsadura, trafikoa, ekonomia datuak, langabezia, etxebizitza, eta abar ikuitzen ditu diagnosiak.

Radiografiaren datu batzuk
Ortzadar Enpresak egindako azterketak nabarmendu du



Agenda 21-en helburu nagusia da Hernaniko garapenak ingurugiroa izatea oinarrietako bat.

Hernaniko lurralde antolamendua asko markatzen duela Donostiatik berta egoteak. Horretaz gain, aipatzen du Hernanin % 8 dela urbanizatu litekeen lurra eta zati horren % 5 direla parke eta plaza.

Demografiari dagokionez, jende gehieneko edade tartea 30-40 urte bitartekoa da. 10 urtez beherako umeak baino 70-80 urtez gorako jende gehiago dago Hernanin.

Basura kontuan, EAEko batzabestekoaren azpitik ga-

biltza hernaniarrak: urtean, 371 kilo zabor sortzen dugu bakoitzak, eta % 13 berziklatzen da. Hondakin arriskutsuei begiratuta, 2000garren urtean Hernanin 1.500 tonelada sortu ziren, 1988an baino % 570 gehiago. Datu sozio-ekonomikoak ere ematen ditu. 2001garrenean 1.662 aktibitate ekonomikoa ari ziren industria, merkataritza eta eraikuntzan. Laneari direnen erdia pasa zerbitzu sektorean dabil eta hiritik bat industrian.

Beste bilerak
Aurrerako bilerak honako egunetan izango dira, sektoreka banatuta: otsailaren 24an, kultur taldeak; 25ean, kirol taldeak; 26an auzo elkarteak; 27an, profesional elkarteak, industriak eta sindikatuak; martxoaren 3an, jolas eta gastronomia elkarteak; 4an, aisialdi taldeak eta eskolak; 5ean gizarte taldeak eta 6an guraso ikasle eta ikasle ohien elkarteak. Bilerak, Biterin, 19:00etan. □

Aralar alderdia gaur aurkeztuko dute

HERNANIN gaur aurreztuko dute Aralar alderdi politikoa. Alderdi politiko berriaren egitasmoa Iñaki Irazabalbeitia eta Ernesto Merino Aralarreko kideek aurkeztuko dute, gaur arratsaldeko 19:30etan Biterin. □

Trikitixa eta perkusio kontzertua gaur

EDURNE Iturbe trikitilariak eta Donato Goienetxe perkusio katedradunak kontzertua emango dute gaur arratsaldean Hernanin, Musika Eskolak antolatuta. Iturbe eta Goienetxek Euskal Herriko eta munduko musika eskainiko dituzte beren erreperitorioan. Kontzertua Biteri kultur etxean da, 19:00etan. □

Etxebizitza eskubidea dela aldarrikatzeko, manifestazioa gaur

ETXEBIZITZA eskubidearen alde eta espekulazioaren kontra manifestazioa egingo da gaur Hernanin, Ate Joka taldeak antolatuta. Gaur 19:00etan Gudarien Plazan. □

Ezkertiar eta abertzaleak bildu nahi dituen

Plataforma berria bihar aurkeztuko dute Biterin

EZKER Abertzalearen ideiak tokia izan dezaten, plataformak sortzen ari dira Euskal Herriko herrietan. Hernaniko plataforma bihar aurkeztuko dute Biterin, arratsaldeko 20:00etan. Asteartean izan zuten azken bilera eta 85 bat lagun elkartu ziren, Biterin. Plataformak hartuko duen izena eta egin beharreko bidea biharko aurkezpenen azalduko dituzte. Aurkezpen bukaeran argazkia ateratzeko dute Plataformarekin bat egiten duen jende guztiarekin. □

Maria Kolera eta Aiora Epelde atxilotu ditu Polizia Nazionalak beste 12 lagunekin batean

■ Gipuzkoa, Bizkaia, Nafarroa eta Araban 14 pertsona atxilotu dituzte, tartean Maria Kolera eta Aiora Epelde ■ Amnistiaren Aldeko Mugimenduak atxilotetak salatzeke manifestazioa deitu du, gaur 20:00etan plazan.

ATZO goizaldean Maria Kolera atxilotu zuen Polizia Nazionalak Hernanin eta Aiora Epelde (Hernanin bizi izandua) Donostian, beste 12 lagunekin batean. Atxilotetak Polizia Nazionalak egin zituen, Bal-

tasar Garzon epaileak aginduta "ETAren nukleoa berregituratzen" ari zirela akusatuta.

Mobilizazioak gaur
Amnistiaren Aldeko Mugimenduak manifestazioak anto-

latu ditu atzo eta gaurko atxilotetak salatzeke. Kronikari adierazi dionez "atxilotuak torturatuak izateko arriskua dago eta kezkatuta gaude". Dei egin dute mobilizazioetan parte hartzera. Gaur, 20:00etan Plazan.

Bestalde, Askatasuna erakundeak ere atxilotuek jasan ditzaketan torturen aurrean kezka azaldu du prentsa ohar batean eta gogoratu dute Polizia Nazionalak 23 tortura deununtzia izan zituela 2002an. □

Allianz

ASEGURUA

Agustin Ezponda
AGENTZIA

Tel.: 943 557 326
656 735 109

ZINGI-ZANGA

Jatetxea



Eguneko menuak.
Ostiral eta
larunbatetan afariak
ematen ditugu.

Florida 54
Tel: 943 33 03 97

OIALUME ZAR
SAGARDOTEGIA



Asteartetik
larunbatera
zabalik.

943 55 29 38

OIALUME AUZO

GALARRETA
FRONTOIA

Ostegun, larunbat eta igandetan jaialdia

GAUR 16:00ETATIK AURRERA ERREMONTE JAIALDIA:

1. partidua: Juraristi - Lander / Iturralde - Etxeberria II
2. partidua: Ezkurra - Iriarte / Bitoria - Iñigo - Lizaso
3. partidua: Elizalde - A.Lekunberri / Bereziartua - Aizpuru
4. partidua: Sarasua - Urko / Agirresarobe - Badiola

SAGARDOTEGIA tolare
IPARRAGIRRE

HERNANIKO
SAGARDOA

OSINAGA AUZO
943 55 03 28

Asteazkenetik
larunbatera
zabalik.
Larunbat
eguerdian
enkarguz.
Tel. 943 55 03 28

SAN MARKOS MANKOMUNITATEA

Jenderik gehienak ontzat eman du hondakinen Plan Integrala San Markos mankomunitateak azaldu duenez

Abenduan hasi ziren Plan integralaren inguruko informazio eta proposamenak bilitzeko kanpainarekin Otsailaren 26ko bileran erabakiko da Plan Integral definitiboa.

SAN Markos Mankomunitatea 2002-2016rako hondakinak gestionatzeko Plan Integrala preparatzen ari da. Plan probisional urriaren 9an onartu zuten eta geroztik jende aurrean aurkeztu dute, informatu eta jendearen iritzia jasotzeko. San Markosek atzo prentsaurrean azaldu zuenez 234 herritarrek, 51 elkarterek eta 91 ordezkari politiko eta teknikok hartu dute parte 22 bileratan.

Emaitzak

San Markosek galdeketa bat aurkeztu du jendeak zer iritzi duen jakiteko. Atzo esan zutenaren arabera % 70 Plan Integralaren aldekoa da eta egokia ez dela diotenak % 7 dira. Jendeak interesik gehi-




San Markoseko arduradunak atzoko prentsaurrekoan.

ena zaborra gaika biltzeari eta kalitatezko konposta egiteari eman dio eta ingurumenari errespetua eta plana gure ingurunera egokitzea ere garrantzitsu juzgatu dute. Herritarrek kontzientziario eta sentsibilizazio kanpainen alde egin dute San Markosek dio-

enez eta errausketari buruzko ekarpenak ere izan dira.

Otsailaren 26an elkartuko da San Markos mankomunitateko junta eta bertan erabakiko dute Plan Integral definitiboa. Jendeak egin dituen ekarpenak ere mahai gainean izango dituzte. □



Antzerkiko eszena bat Biterin.

Dantza eta antzerki ikuskizunak jendea bildu zuen Biterin

1937 Gogoaren bidezidorretatik ikuskizuna izan zen joan den asteartean Biterin. Gerra Zibilean barkuan sartu eta Ingalaterrara alde egiten duten 7 gazteren historia kontatzen duen obra honek antzerkia eta dantza uztartzen ditu. Kukai eta Ttanta taldeen ikuskizunak jende asko bildu zuen Biteriko areto nagusian. □

ESKOLA KIROLA ASTEBURUKO EMAITZAK



Areto futboleko gazteak pozik elkarrekin.

Futbol sala	Taldeak	Emaitza	Futbola	Taldeak	Emaitza	Boleibola	Emaitza	
Infantilak	Udanegi-Langile	1-2	Alebinak	Imaculada -Elizaboa A	4-5	Infantilak	Lizardi-Langile	0-3
Benjamínak	Langile A -Langile B	3-1	Alebinak	Uzun ea B -Langile A	7-5	Saskibaloia		
Benjamínak	Langile C -Elizaboa A	1-2	Alebinak	Langile B -Elizaboa B	2-1	Infantilak	Langile -Axular	22-37
Benjamínak	Uzun ea -Elizaboa B	0-1	Alebinak	Uzun ea A -Langile C	0-11	Errugbia		
			Alebinak	Langile -Elizaboa	6-1	Benjamínak	Elizaboa B -Langile B	0-4
						Benjamínak	Uzun ea -Imaculada	4-0

HITZ BITAN

ZUHAITZ EGUNA

Izen emateko azken eguna gaur. Zuhaitz Egunera joan nahi dutenek gaur dute izen emateko azken eguna. Igande goizean izango da helduentzako txanda eta aurten beste bide batetik joango dira oinez Aparrainera: Akarregi, Añua, Epelerreka, Igoingo lepoa, Malmazar, Lizarregi eta handik Aparrainera. Irteera goizeko 08:00etan izango da, Plazatik. Izena eman nahi dutenak Mendiriz Mendiko bulegotik pasa gaur 20:00etatik 21:00etara. Umeek berriz ikastetxeetan eman dute izena eta larunbatean aldatuko dituzte arbolak. Aurten 500 arbola sartuko dituzte: haritz landareak, norteko haritzak, pagoak eta gartzainak.

GALDUTAKOAK

Umeentzako bizikleta eta sehaska azaldu dira. Umeentzako bizikleta bat eta sehaska bat azaldu dira. Galdu dituenak Udaltzaingoa dauzka.

ASKAGINTZA

Droga-menpekotasun teknikarientzat kurtsoa. Arriskua duten kolektiboetan droga-menpekotasuna ebitatzeko kurtsoa antolatu du Askagintzak teknikarientzat. Kurtsoa Oriol Romani antropologo sozialak emango du. Oriol Romanik *drogak, ametsak eta arrazoiak* liburua idatzi du besteak beste. Kurtsoa martxoaren 1ean izango da, goizeko 10:00etatik 19:00etara. Izen emateko Gipuzkoako Askagintzara deitu: 943 336080.

GAZTE TXOKOA

Arrazakeriaren inguruko tailerra bihar. Bihar tailerra izango dute Gazte Txokoa kulturak eta arrazakeria gairen bueltan. SOS arrazakeria taldeko kideek bideratuko dute tailerra, arratsaldeko 18:00etan. Tailerra irekia da 12-17 urte bitarteko gazteentzat.

ATLETISMOA

Eider Aldabe irabazle San Hilario krossean. Igandean San Hilario krossa jokatu zen Miramonen eta hernaniarrak dotore aritu ziren. Eider Aldabe lehenengo gelditu zen infantiletan eta Txomin Lizeaga 3garren. Helduetan Eva Esnola bigarren izan zen; alebinetan Mikel Von Wichmann 2garren eta Manex Pagola 3garren.

BOLEIBOLA

Langile-Hernanik aixa irabazi dio Zarautzi. Langile-Hernanik garaipen erraza lortu du joan den asteburuan Lizardi-Zarautzen kontra: 3-0. Jokua: 7-25, 11-25, 6-25. Langile-Hernanik lehen postua du jokoan datorren larunbatean Andoingo Leizaran taldearen kontra, kiroldegian, 09:30etan. Partidu gogorra espero dute. Ordu berean jubentzeko ere jokatu dute CD Fortunaren kontra eta irabazteko esperantzan dira orain ere Hernaniko neska. □

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

- ☛ Taxiak: 943 550093
- ☛ Udaltzaingoa: 943 333288
- ☛ DYA: 943 464622
- ☛ Autobusak: 943 556662
- ☛ Anbulatorioa: 943 006666
- ☛ Jokalari anonimoak: 943 331103

☎ FARMAZIAK

- ☛ Eguez: Aizpuru
Latxunbe Berri 11
☎ 943 336077
- ☛ Gauez: Iturralde
Usurbil. Poligono 13, 9
☎ 943 363395

IRAGARKI MERKEAK

Gela bat alokatzen da, bulegoko lanak, klase partikularak edota masajeak emateko. Zentroan. Interesatuak deitu: **943 55 10 92**

Neska bat behar da Hernani inguruko jatetxe batean mahaiak serbitzeko. Ibilgailua izatea beharrezkoa. Maixabelengatik galdetu. Tel.: **943 55 02 40**

Emakume bat behar da haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Interesatuak deitu: Tel.: **943 33 19 18 (Arratsaldeko 18:00-20:00)**

Aireportuetako hegaldi KONTROLADOREA. AENaren kombokatoria. Ezinbestekoa: Diplomatura edo lizentziatura. Ingelesa. ADOZ: **943 44 45 09**

AUTOESKOLAKO IRAKASLE. Parorik gabeko lanbidea. Sarrera garrantzitsuak. Presta zaitez. ADOZ: **943 44 45 09**

GUARDA FORESTALA. Euskal Herriko parke eta erreserba naturaletan lan egin ezazu. Ezinbestekoa: Graduatua. Presta zaitez. ADOZ: **943 44 45 09**

BONBEROAK. Euskal Herriko parkeetan egin ezazu lan. Lan baldintza bikainak. Ezinbestekoa: Graduatua. ADOZ: **943 44 45 09**

TRANSPORTISTA. Transportean ibiltzeko behar den gaitasun titulua lortu ezazu. ADOZ: **943 44 45 09**

ADMINISTRARI AUXILIARRAK. Udaletarako deialdiak. Ezinbestekoa: Graduatua. Presta zaitez. ADOZ: **943 44 45 09**

UDALTZAIN bezala lan egin ezazu Udaletan. Datozen deialdietarako. Ezinbestekoa: Graduatua. Presta zaitez. ADOZ: **943 44 45 09**

Udal Liburutegietan AUXILIAR. Datozen deialdietarako. ADOZ: **943 444509**

BANKU eta AURREZKI KUTXAtarako auxiliarrak behar dira. Ezinbestekoa: B.U.P. Datozen deialdietarako. Presta zaitez. ADOZ: **943 44 45 09**

Txofer, elektrizista, kontserje, operario,... Udaletan lan egin ezazu. ADOZ: **943 444509**